

bidegileak



Karmele Goñi (1926)

Egilea:

ELIXABETE GARMENDIA

Etnografiari emakume ukitua eman dion anderea dugu aurrean: Karmele Goñi Auzmendi. Emakume ukitu nabarmena. Dela xehetasunetan, adibidez base-rrietan logelak hornitu eta atontzeko moda belaunaldiz belaunaldi nola joan den aldatzen deskribatzen duenean; edo beheko sutik ekonomikara, eta ekonomikatik butanora, sukaldeak ze aldaketa izan dituen kontatzean (hori dena Zeraingo herriari buruz egindako lanetan). Eta emakume ukitua osotara, etnografiaren barruan bereziki landu dituen ataletan, direla jaiotza eta heriotzarako erritualak, maitasun eta ezkontza kontuak, aisialdirako ohiturak edo osasuna zaintzeko erremedio-



Karmele Goñi (1926)

ak eta, oro har, eguneroko bizitza xume bezain duinari dagozkion jokamoldeak. Horietan denetan, emakumearen ikuspuntua sartu du Karmele Goñik, gizonaek erreparatuko ez zituzketenak azalera ekarriz.



Tolosan, etxeko lorategian

Zerain izan da bere ikerketa etnografikoen iturburu eta gehien landutako ingurua. Eta Bilbo berriz lan praktikorako zelaia; izan ere, 1979tik 1997ra Bilboko Museo Etnografikoan jardun du, bertako Juntako presidente nahiz bokal modura, eta baita zuzendari gisa ere. Bere aldian, berrikuntza, aberaste eta berregokitze nabarmena bizi izan zuen Museoak.

Bilbok eta Zerainek, hiri handiak eta herri txikiak, mugarritzen dute bere bizitza, baina jaio, hain zuzen ere, herri handi bezainbat hiri txiki den Tolosan jaio zen, 1926an, sagatzat har dai-tekeen familia ezagun zabal baten barruan.

Bi jatorri ezberdin

Goñitarrak eta Auzmenditarrek bi zutabetan banatzen ditu Karmelek. Goñitarrak betiko tolosarrak, industriari lotuak, poxpolu fabrikaren bidez. Bixente, Karmeleren birraitona, eta Zesareo, aitona, izan ziren langintza horretan jardun zutenak. Zesareoren zazpi seme-alabetatik gazteena, Eugenio, Karmeleren aita izango zena, Suitzan egin zen ingeniari eta forja eta torloju fabrika bat sortu zuen Tolosan. Goñitarrak Tolosako Labaiendarrekin badute lotura, hain zuzen ere, Antonio M^a Labaienen emaztea, Carmen,



Txikitatik bizi izan zuen euskal giroa etxean



Amona Dorotea

Goñitarra baitzen amaren aldetik. Eugenioren beste arreba bat, Maria Goñi, Doroteo Ziaurrizekin zegoen ezkondata, Tolosako alkate eta Eusko Alderdi Jeltzaleko buruzagi ezaguna izan zenarekin.

Auzmenditarren aldetik, edo hobeto esan, Auzmendi Goiatarren aldetik, datorkio Karmeleri Goierriko kasta, zalantzarik gabe aldarrikatzen duena. Aitona Ataungo Aiakoa zen, karlista, Bigarren Karlistadaren ondoren, soldaduskari ihesi, Argentinara joana; artzaintzan morroi modura hasi eta artalde handien jabe izatera iritsi zen. Adar honetan, ordea, amona da ardatza. Dorotea Goia Zeraingo *Iñurrategi* baserrian jaioa zen, Goia pintorearen jatorri berekoa. Doroteak bi anaia eta ahizpa zeuzkan Argentinan, «trenak bukatzen ziren tokian», Labulayen, Rosariotik gertu. Ahizpak, tolosar batekin ezkondua bera eta hiru seme-alabaren ama, hotel bat zeukan. Hara eramán zuen Dorotea halako batean, iloben kargu har zezan. Hotela, inguruko euskaldunen topaleku bihurtzen zen urtean bitan, Labulayen ganadu feria egiten zutenean. Horrela bada, ezagutu du Ataungo Auzmendik Zeraingo Dorotea eta egin dio ezkontzeko proposamena. Doroteak erantzuna: «ezkonduko nintzateke, baina Euskal Herrira joatekotan». Ataundarrak, baietz, onartzen zuela baldintza. Eta halaxe, ezkondu eta hurrengo egunean hartu zuten itsasontzia Euskal Herrirako. Tolosan erosi etxea, San Frantzisko kalean, eta bertan lekutu zen familia. Hiru

alaba izan zituzten, eta Doroteak bazekien zer nahi zuen haientzat: heziketa ona, ikasketak. Tolosako Monja Frantsesetan eta Hondarribiako Damas Negrasen ikastetxeetan ibili zituen, baina horri nahikoa iritzi ez eta hiru alabak hartuta Pauera joan zen, ikasketak han jarrai zitzaten. Oso gazterik ezkondu zitzaizkion hiru alabak, hirurak ere industria gizonekin: Felisa lehen aipaturiko Eugenio Goñirekin, Teo Manuel Laborderekin –Andoingo Laborde lantegi ezagunekoa– eta Nisa Juan Aranbururekin, abokatua ikasketaz baina paper fabrika baten jabe eta kudeatzailea lanbidez.



Birraitonaren lantegiko poxpolu kaxa eskuetan

Gerraren sakabanaketa

Hogeita hamaseiko gerraren hasierak Zera-
inen harrapatu zituen Karmele eta bere hiru
senide, Miren, Iñaki eta Itziar, amona Doro-
tearekin uda pasatzen. «Ikusten genuen nola
sartzen ziren nafarrak Zegama eta Segu-
ratik». Beste bi anaia berriz, Luis eta Antton
Tolosan geratu ziren. Aita-amak Zeraina eto-
rri omen ziren asteburuan, baina hortik
aurrera familia zabalaren sakabanatze eta
sufrikarioa hasi zen. Aita, Eugenio, kartzelara,
eta fabrika militarizatuta. Osaba Luis, frentera

gudarien mediku gisa; gero preso hartu eta
Puerto de Santa Mariako penalean egon zen,
beste sendagile talde batekin. Izeba Maria eta
haren senarra Doroteo Ziaurriz, Santoñatik
Donibane Lohizunera. Bide beretsua segi
zuten Labaiendarrek ere, gerra hastean
Tolosako alkate baitzen Antonio M^a. Honen
koinatu baten etxean, Sansineneatarrean,
aterpetu zen don Jose Migel Barandiaran,
Saran. Familiako lagun mina zuten don Mateo
Mujika gotzainak ere alde egin behar izan
zuen, Kanbora hain zuzen ere.



Osaba, Luis Goñi sendagilea, kartzelatik irten berritan



Kutsu frantziarrek heziketa izan zuen

Gezurra dirudi Karmele hamar urte eskaseko neska koskorra izatea gerra hastean, hain dauzka gogoan etxeok eta ingurukoek jasan behar izan zituzten gorabeherak. Zeraingoak ere gogoan dauzka. Ordurako amonak herriko plazan dagoen *Jauregi* izeneko etxea zeukan hartuta udak igarotzeko. Zeraingo abertzaleak mendian ezkutatu ziren gerrako lehen egunetan, nafarrak sartu berri-tan, eta *Jauregi*ko leihoan jarri eta kentzen zuten maindire zuriaren bidez jakiten zuten herrira itzultzeko bidea libre zuten ala ez.

Amona Dorotearen kontuak

«Amona oso kontularia zen. Iparragirrerren kantuak denak zekizkien eta kontuak berriz atzo gertatu izan balira bezala. Santa Kruz apaiza ere ezagutu zuen, neska koskorretan, beraien jaiotetxean, *lñurrategin*». Eta hortik aurrera amonari ikasita bezala hasten da kon-tatzen Karmele su inguruan aditzeko istorio horietako bat; «ikaragarritzko euria zen gau beltz batean» hasten da, errota ere bazen *lñurrategi*ko sukaldean, norbaitek atea jo eta zaldi handi baten gainean, bizar luzeko gizon



Zerainen

bat azaldu zenean, bere mutiletako bat gaixo zeukala eta baserrian zaindu eta senda zezaten aginduz, bestela, etxeko nagusiari mehatxua: «hiltzen bada, zure bizitzarekin ordainduko duzu».

Karmelek amona Dorotearengandik jaso zuen, zuzen-zuzenean, ahozko jakinduriak eman dezakeen guztia: istorioak, kantuak, ohiturak, legendak, usteak, esanak... Eta pauso bat haratago eman zuen: horiek paperean biltzen hasi zen, bere kabuz, 15-16 urte zitueneko; artean ez zekien egiten ari zena etnografia zela. *Jauregik* aukera ezin hobea eskaintzen zion horretarako. Han izaten zen astebururo bisitan *Urrusti-Erdiko* Luisa, Dorotearen lagun eta kidea; trukean urtean behin, arkumea hil-

tzen zutenean edo, Karmele *Urrusti-Erdikora* joaten zen gonbidatu; baserri horrek kapera ere badu, eta Karmelek titulu bat ematen dio: sekulan ezagutu dituenetatik «gehien eta ondoen errezatzen zen etxea».

Jauregi, bestalde, Barbari mendikoen auzo-etxea zen, hau da, igandetan menditik mezetara jaisten zirenean oinetakoak eta aldatzeko etxea. Goizean oso garaiz, lehenengo meza-
ren aurretik ireki behar izaten zuten *Jauregiko* ataria Barbarikoentzat. «Ipuinik ederrenak, hangoak –dio Karmelek–, eta ohiturak ondoen gorde dituztenak» barbaritarrengatik. Horrela, ohitura eta sineste asko bizirik eta indarrean zeudela jaso ahal izan ditu Karmelek.



Vespa-ko neska

rantziar kutsuko heziketa izan zuen Karmelek. Lehen ikasketak Tolosako Monja Frantzesetan egin zituen eta batxilerra Donostiako La Asunciónen; ikastetxe hau Belgikatik etorritako monja batzuek zeramaten, hemengoak baino irekiagoak, eta ezberdinak erlijio kontuetan. Norberaren autonomia eta erantzukizuna lantzen zuten, eta espiritu kritikoa; «ez garela arkumeak artzainaren atzetik». Karmelek oroitzapen onak besterik ez dauzka ikastetxe hartatik.

Erlijioaren bidetik don Carlos Abaitua apaizarekin topo egin zuen gaztetan. Hark, Gasteizko *Jesus Obrero* ikaste-



Amak oparitutako Vespan

txea sortzeaz gain, gizartearekiko konpromisoa lantzen zuen gazteen artean. Bide horretatik, Karmele don Carlosek agindutako galdaketa sozialak betetzen ibili zen Tolosan, Irundik Altsasura bitarteko trenbidea konpontzera iritsi berri ziren etorkinen artean. Gogoratzen du Extremadurakoak zirela gehienak, Valle de la Serenakoak, eta bizibide benetan nekeza zeramatela.

Irakurketen artean, gaztetxotan, Maritain eta Blois. Amak liburutegi ona zeukan, gerra zela eta asko samar urritu eta pobretu bazitzaion



Don Jose Migel Barandiaranekin

ere, beldurrez, etxea miatzera joaten zitzaielako polizia frankista noiznahi. Hala ere, han zeuden esaterako Barojaren nobelak eta euskal gaietako zenbait liburu, hondamenditik libratuta.

Hogei urte bete zituenean amak *Vespa* bat oparitu zion Karmeleri, eta harekintxe hasi zen herriz herri eta baserriz baserri etnografiako galdeketak egiten. Paniella etnografo katalana saskigintzari buruzko ikerketa bat egitera etorri zen Euskal Herrira eta Karmele izan zuen laguntzaile. Saskigintza bizi-bizirik zegoen artean, herri askotara zabaldua; batzuek profesionalki jarduten zuten horretan,

eta beste batzuek afizioz. Saskigilerik interesgarrienak Urnietan topatu zituela dio Karmelek, baina Oñati, Urrestila eta Asteasun ezagututakoak ere gogoratzen ditu.

Karmelek familian bertan izan zuen etnografian lehen pausoak zuzenduko zizkiona; izan ere, Manuel Laborde, bere izeba Teoren senarra, Euskal Herriko Adiskideak eta Aranzadi Elkarreketako kide zen eta arlo horretan zaletu eta jakituna. Don Jose Migel Barandiaranekin harremanetan zegoen, eta horrela, Karmele, 18 urte besterik ez zituela, sartu zen giro horretan. Laster fitxatu zuten ardura handiagoetarako.

Aranzadi eta Urtekariak

Karmele Aranzadi Elkarteko Antropologia eta Etnografia Ataleko idazkari izendatu zuten 1947an, eta hortxe segi zuen hamar urtez. Bere eginkizunak bi ardatz zituen; batetik gerra aurreko kolaboratzaileekin berriro harremana lotzea eta kolaboratzaile berriak bilatzea eta, bestetik, etnografiako galdeketa eta gainerako materialak zabaltzea. Garai hartan don Jose Migel Barandiaran Saratik itzuli berri zen, eta gerrak etendako lanei berriro ekiteko irrikitan zegoen. Etnografiako ikerketen jarraipen eta zabalkunderako ezinbestekoa jotzen zuen Eusko-Folkloreko Urtekaria argitaratzea. Horrela bada, ahal bezain laster prestatu zuten Urtekaria, XVgarrena hain

zuzen ere, eta 1955ean kaleratu. Horren ondoren, 1936an gerra lehertu zenean argia ikusi ezinik geratutako zenbakia eraman zuten inprimategira. Barandiaranek oso argi omen zeukan Urtekariak hutsik egin gabe argitaratu behar zirela, etnografian ari zirenek elkarren lanen berri zehatz jakiteko, bidean ezer galdu gabe. «Erakusten zigun beti eduki behar genuela argi guk pauso bat eman, txikia izanik ere, eta atzetik etorriko zirela hobeak, gurea gaindituko zutenak.» Disiplina horretan hezi zen Karmele, don Jose Migel maisu zuela. Urratsez urrats jarraitu zion eta haren «Galdeketa etnografikorako gida» eskuan hartuta, bere amonaren herri kuttuna hasi zen ikertzen, Zerain.



Parisen



Londresen

Zeraingo etnografia

Zeraingo ikerketan lehen pausoak Manuel Laborderi laguntzen eman zituen Karmelek. Laborde Zeraingo meatzeen arrastoan zebilen, eta *Barbari Haundiko* aitonak kontatuta, hark bere aitonari entzunda, jakin zuen han, Barbarin, jentilak bizi zirela garai batean, eta haiek olak zituztela, burniolak eta haizeolak; hortik tira eginez aurkitu zuten Segurako Artxibategian XVI. mendeko pergamino bat, Zeraingo Barbari mendiko meak aipatzen zituenena. Ikerketa horretan laguntzaile modura ibili eta laster hasi zen Karmele lanak bere kabuz egiten.

1955eko Urtekarian argitaratu zuen lehen artikulua: *La Parzonería en Guipúzcoa*, Zerain kide den Aizkorriko Partzoneriaz. Hurrengo Urtekarian berriz, 1956koan, Zeraingo artzantzaz idatzi zuen. Herriko hiru artzain hartu —Joxe Domingo Muñoa, Joxe Antonio Alustiza eta Joxe Migel Iparragirre— eta Barandiaranen galdetegia jarraituz erantzun ziotena biltzen du artikulu horretan. Artzain hauek uda Urbian igarotzen zuten, eta beraz, herriko mugak gainditu egiten ditu Karmeleren lanak, Urbian eta Arbelarren Partzoneriako kide diren beste herri gipuzkoar eta



Aranzadik antolatutako Espeleologia jardunaldietan



Berastegin, eskiatzen

arabar batzuetako artzainak ere biltzen baitziren.

Lehenengo lanak artzantzan zentratu baldin bazituen, hortik aurrera Zeraingo etxe barruetan sartu zen Karmele. Hurrengo idatzia, 1975-76ko Urtekarian argitaratua, hauxe izan zen: *Estudio Etnográfico del pueblo de Zerain—Grupo doméstico*. Beti ere Barandiaranen galdetegiari jarraituz 25 urtetan zehar bildutako informazioa ematen da bertan, xehetasun handiz.

Hala ere, ikerketak amaierarik ez eta 1986an *Etnografía de Zerain. II. Usos del grupo doméstico*

izeneko lana argitaratu zuen Euskal Herriko Atlas Etnografikoaren barruan, Etnikerreko beste kide batzuekin batera irabazitako don Jose Migel Barandiaran bekari esker.

Eusko-Folkloreko Urtekariaren 1991ko zenbakian berriz, *Etnografía de Zerain—Ritos de Pasaje. La Muerte* izeneko lana ageri da. Honenbestez Zeraingo bizitza ez ezik, heriotza, honen inguruko sineste, usadio eta erritualak miatu ditu Karmele Goñik. Hurbil-hurbiletik egindako azterketak dira, herria haurtzarotik ezagutzeaz gain, urtero uda bertan igaro izan baitu Karmelek, Jauregin, 1998rarte.

Emakume ukitu hori

Eusko-Folkloreko 1955 eta 56eko Urtekarietan Karmele da artikulua sinatzen duen emakumezko bakarra. Gerora hasi ziren azaltzen beste emakume batzuk etnografiaren arloan, tartean Mirentxu, Karmeleren ahizpa, Elosu eta Bergarako beste toki batzuei buruzko lanak egin izan dituenak. Baina gerraste hartan, etnografia, beste arlo asko bezala, gizonezkoek bakarrik lantzen zuten Euskal Herrian. Karmelek aitortzen du bere lanetan emakume sena somatzen dela esaten zaionean, baietz, berak gizonezkoek erreparatzen ez zieten aldeei ere begiratzen ziela. «Galdeketak gizonezkoek egiten zituzten, ez amodiorik, ez horrelako konturik batere.» Baina don Jose

Migelek askatasuna ematen omen zuen galdeketak nork bere erara osatu eta moldatzeko, eta horri helduz aztertu eta bildu izan ditu emakumezkoen erreinukoak izan diren alde asko eta asko, jaiotzari buruzkoak, heriotzaren ingurukoak, eguneroko bizitzakoak... Bere lanak ez dira tresna eta langintzetara mugatzen. Hor ditugu saskiak eta lurrezko ontziak, jantziak, oihalak eta zapiak, ezkontzako arreoak, erditze kontuak, umezaintza, ondoez eta gaixotasunetarako erremedioak, garbitasunerako ohiturak, otordu eta janariei buruzkoak... Karmele sukalde zokoetaraino eta logeletara sartu da, kutxak zabaldu ditu eta ehun zaharrak atera, emakumezkoen artean ahopeka esaten diren kontuak entzun eta jaso



Oihal eta zapiak, etnografiarako gai

ditu, herriko protokolo ez idatziari zentzua bilatu dio, eta amonetatik bilobetara, emakumezkoen lerroan zehar iragaten den jakinduria horri arrastoa segi dio.

Bilketa eta ikerketa lan horien erakusle dira, orain arte aipatutakoez gain, han-hemenka argitaratu izan dituen artikuluak: etxeko elikaduraz, haurren jolasez, heriotzaren inguruko erritoez, saskigintzaz, ehunaz eta Bizkaiko jantzien bilakaeraz, besteak beste, gehienak 1980 eta 1996 bitartean kaleratuak. 1964an sortu zenez geroztik, Etnikerreko kide da Karmele, eta talde horietatik bideratu izan ditu ikerketak. Bere jakintza Bilboko Museo Etnografikoan mamitu eta aplikatu du batez ere.

Euskal Museoa taxutzen

Hamazortzi urte egin zituen Karmelek Bilboko Museo Etnografikoari lotuta. 1979an aukeratu zuen Bilboko Udalak garai hartan Bizkaiko Museo Historikoa zeritzaneko Juntarako bokal. Hurrengo urtean Juntako presidente izendatu zuten; Museoko zuzendaria, Mario Grandes, hiltzean, jarduneango zuzendari kargua ere eman zioten, eta gero zuzendari gisa berretsi. 1997ko abuztura bitartean zuzendu zuen Museoa.

Garai ezberdinen ispilu, Museoak izandako izen aldaketak. 1919-20an, sortu zutenean, Bizkaiko Museo Arkeologikoa eta Euskal Etnografiazkoa zen. Frankismoaren garaian, Pilar Careaga alkate zela, Bizkaiko Museo



Oihaletako marrazkien esanahia azaltzen

Historikoa deitu zioten. Gerora hasierako izena berreskuratu da, Bilboko Euskal Museoa deituz. Izan ere, Karmele Goñiren zuzendari-tzapean, Bizkaiko mugaz gaindik Euskal Herri osoko ondareari begira jarri da Museoa, eta bide horri jarraiki, «Euskal Herriak denboran zehar izan dituen bizitze-moduen lekuko diren puskak eskuratzea, horiei bere onean eustea eta horiek ezagutaraztea» da Museoaren eginkizuna gaur egun. Bisitariari itsas-bazterretik barrualdeko mendietarainoko

bidaia eskaintzen zaio, arrantzale eta marinelen txalupetatik, artzainen bordetaraino, kresal usainetik garo usainera. Baina bada bolbora usaina ere, Euskal Herrian egin izan diren armen bilduman, besteak beste. Eta atzerantz, mendetan zehar atzerantz, kobazuloetaraino ere eramaten du Museoak bisitaria. Karmelek etnografian jorratu izan dituen arloak ahaztu gabe, eguneroko bizitzako puska horiek, ehun, jantzi, jolas eta tresneria xumea.



Museoaz gaindi

Lanbidea zaletasun, zaletasuna lanbide, Karmeleren jarduera ez da mugatu Museora, ezta azterketa etnografikoak egin eta argitaratzera ere. Goñitarra bere jakintza hedatzailea ere izan da. Hitzaldiak eman ditu nonahi, erakusketak antolatu, erakunde publiko nahiz pribatuaren aholkulari izan da kultur ondarea bildu, osatu eta antolatze-ko eginkizunetan... Eta beste arlo oso zehatz bat ere landu du: dantza taldeekin izan dituen harremanak, 60ko hamarkadaz geroztik, dantzarien jantzigia berritzeko; Donostiako *Argia*-rekin hasi eta Portugaleteko *Elai-Alai*, Galdakaoko *Andra Mari*, Bermeoko *Etorkizuna* etabar izan dira Goñiren



San Migel, kuttuna oso

ikasle kontu honetan. Oinarrian, Karmelek zuzen-zuzenean Bizkaiko hainbat herritan egindako ikerketa dago, bertako jantziak berreskuratzearen. Horien artean Garaiko junteroen txalekoak ditu oso gogoko, more kolore dotorekoak. Senarrarekin, Jose M^a

Mujikarekin joaten zen Karmele, igandetan, herriz herri, baserriz baserri. Euskaraz aritzeak zabaltzen zizkien etxeetako ateak: harrera oso ona eta, sarritan, kutxa zaharretan gordeta zeuden jantzi haiek oparitu egiten zizkieten, ordaindu beharrik gabe. Horrela osatu zuen Karmelek Museorako bilduma, eta aberastu zuen, eredu zaharrak berriro indarrean jarritz, dantza taldeen itxura. Hori jakinda, jende asko hurbildu izan omen da Museora, esaterako ezkontzeko jantziak egiteko modelo bila.

Bilbo euskaltzalean

Karmele 1957an joan zen Bilbon bizitzera, Jose M^a Mujikarekin ezkondu zenean. Pare bat urte lehenago elkar ezagutu omen zuten, Corpus egunez, Aralargo San Migelen; hurrengo urtean, berriro topo egin eta handik egun gutxira Arantzazun, Aranzadi Elkarateak antolatutako espeleologoek topaketa batzuetan bildu ziren berriro. Erregetarako senargai-emaztegai egin ziren eta hurrengo irailean, San Migel bezperan, ezkondu ziren Zeraingo elizan.



Ezkontza, 1957ko San Migel bezperan



Alaba zaharrena, Amaia, jaiotzean

Jose M^a Mujika ingeniari industrialia da ikasketaz, Labe Garaietan aritua garai batean eta, gero, familiak zeukan eraikuntzako enpresa batean. Eusko Alderdi Jeltzalearen Euzkadi Buru Batzarreko kide zen, klandestinitatean. Txemak eta Karmelek hasieratik erabaki zuten beren umeak –bost seme-alaba– ez zituztela betiko eskola horietako batera bidaliko. Horrela bada, Bilbon 1959tik aurrera sortu zen ikastolen mugimenduan sartu ziren bete-betean, beste familia euskaltzale eta abertzale batzuekin. Hasteko, Bizkaiko lehen andereño izan zen M^a Angeles Garairengana eramán zituzten haurrak; hortik aurrera, Mujika-Goñitarrek pausoz pauso jarraitu zituzten mugimendu haren gorabehera guztiak. 1966an, *Resurrección M^a Azkue* ikastola

sortu zenean, Txema Mujika eta Nikola Madariaga arkitektoa izan ziren Elkano kaleko 6garren zenbakian zegoen bulegoetako etxebizitza eskolak emateko egokitu zutenak; etxebizitzaren jabea Anton Uriarte zen, Tere Rotaetxeren senarra. Ikastola horrek bi urte geroago lortuko zuen baimena, Euskaltzaindiaren babesean, Julene Berrojalbiz zuzendariak eta Alfontso Irigoien euskaltzainak egindako buruzpideei esker. Ikastetxearen kudeaketa gurasoen esku zegoen, eta horrela sortu zen Andere Elkartea; hogeiren bat emakume ziren, ikasleen amak nahiz bestelako euskaltzaleak; horien artean, Karmele Goñi. *Azkue* ikastolatik *Oñate* ikastetxea sortu zen gero, ikasleak, handitu ahala, euskaraz hezten jarraitu ahal izateko; antolaketa lanetan hor aurki-



Senarra eta bost seme-alabekin

tuko ditugu berriro ere Mujika-Goñitarrak, harik eta 1972an *Lauro* Kooperatiba osatu zen arte.

Karmelek heziketaren osagarri zen arlo batean jardun zuen bereziki: dotrina euskaraz irakatsi eta hurrek lehen jaunartzea hizkuntza horretan egin ahal izateko ahaleginetan. Testuak prestatu, katekistak bilatu eta hezi, Bilboko parroketako erretoreekin hitz egin lehen jaunartzeko meza euskaraz izan zedin... Zailtasunak, barra-barra izan zituzten, baina eragozpen guztien gainetik 65 katekistako taldea osatzea lortu zuten, eta ia hamar urtetan zehar, 6.500en bat haur pasa zituzten euskarazko dotrina eskoletatik. Laguntzailerik handiena Jose M^a Rementeria izan zuten, Erro-

man ikasia, gotzaitegiko katekesiaren ardura-dun izendatu zutenez geroztik.

Erljioarekin zerikusia zuten jarduera horietan Karmelek, sinestuna izanik, behin baino gehiagotan egin zuen topo –zoritxarrerako– Elizarekin eta Elizaren ordezkariekin. Horregatik, bestelako kasuetan, apaizak euskalgintzarako eta herrigintzarako laguntzaile gertatzen zirenetan, oso esker onekoa agertzen da haiekiko. Guztien artean, bat dauka gorai-patu beharra, don Klaudio Gallastegi. «Hori gure Eliza, esaten genuen, hori gure gotzaina.» San Antongo parroko ezagunaren itzala, izan ere, Bilbo osoko euskaltzaleengana zabaltzen zen.



Andere Elkartekoak Zeanurin, Tere Rotaetxeren etxean



San Migelen, lehen Alderdi Egunean

Hamarrekoak

Ikastolen hasierako mugimendu hartan emakume asko ageri dira han-hemenka. Ez bakarrik lehen andereñoak, ezta ama zirenak ere. Andere Elkarteko zenbaitzuek ez zuten seme-alabarik, edo ez behintzat ikastolarako adinean, eta, hala ere, hor aritu ziren, jo ta ke, korrontearen kontra ekinean. Karmele damu da: «zenbat gauza geratu diren jaso gabe emakumeek egindako lanaz; emakumeek zeramaten askotan zama astunena, eta erresistentziaren mugimenduko zati haundia». Izenak aipatzen hasita, emozionatu egiten da Karmele. Lehenengo eta behin, Tere Rotaetxe dakar gogora, «gure liderra, denon ardatza». Familia abertzale ezagun bateko alaba, gerratik ihesi Donibane Lohizunen bizi izan zen 1939 arte, eta ondoren Venezuela, Ameriketako Estatu Batuak eta Portugaldik pasa eta gero, 1942an itzuli zen Bilbora. Seme-alabarik

ez izan arren, Bilboko ikastolen bultzatzailearik handienetakoa izan zen, bere denbora ez ezik, ahalbide guztiak jarritz mugimendu horren alde.

Beste izen bat: doña Kontxa Azaola. «Doña Kontxaren poltsa txikiak hitz egingo balu... Txikitxoa bera ere, beti mantalinaz jantzia.» Azaola *doña* tituluarekin ageri da beti, eta askotan ageri ere, gerra osteko ekimen euskaltzaleak isiletik laguntzen.

Azpimarratuta ageri diren emakume hauez gain, beste asko dira abertzaletasunaren sarean jardun zutenak. Bazuten antolatze modu berezi bat ere, *Hamarrekoa*. «Hau da, ni *Hamarreko* baten buru banaiz, beste bederatziri deitu behar diet», azaltzen digu Karmele Goñik. Eta horrela, hamarnaka abisuak pasaz, hamarnaka bilduz, hamarnaka lan eginez, Bilboko abertzaletasunari su eta garra eman zioten.



Anai-arrebekin

Ageriko politika eta beste

Franco hil eta klandestinitatea amaitu zenean, Karmelek sartu-irtenen bat egin zuen ageriko politikagintzan, beti ere jeltzaleen eskutik. Juan Ajuriagerra buruzagi historikoarekin bazituen harremanak eta 1978an Euzkadi Buru Batzarreko kide izendatu zuten; garai horretan Kristau Demokraziako bileretan parte hartu izan zuen. Era berean, *Deia* egunkariako bazkide sortzaileetarikoa izan zen, eta Administrazio Kontseiluko kide 1986 arte.

Dena den, bere jarduerara, orain arte kontatuak adierazten duen bezala, gehiago zuzendu da kulturara, oro har, eta etnografiara bereziki. Euskerazaleak, Eusko Ikaskuntza, Etniker, Aranzadi eta Euskal Herriko Adiskideen Elkarteko bazkide izaten jarraitzen du, eta noizbait astia aterako du pilatuta daukan hainbat zirriborro, apunte eta idatzi zuzendu eta argitaratzeko. Eskuartean, besteak beste, txo-rimaloei buruzko ikerketa bat darabil.



Zeraingo omenaldian, 2002ko San Migel bezperan

Bere lanaren onarpena, ez zaio falta izan. Tolosak bertako kulturagileei eskainitako omenaldian, 1977an, Karmele izan zen omen-
duetako bat, eta horrela ageri da 1983an argi-
taratutako *Erretratuak* liburuan. 1979an
Euskal Herriko Adiskideen Elkarteko Biz-
kaiko sailak ohorezko bazkide izendatu zuen.
1992an *Andres Mañarikua* saria jaso zuen
Bizkaiko Diputaziotik, euskal kulturaren alde
egindako lana eskertzeko; 1997ko uztailean
omenaldia egin zioten Portugaleten, Nazio-
arteko Folklore Jaialdiaren barruan, *Elai-Alai*
dantza taldeari emandako laguntzarengatik.
Zerainek berriz, 2002ko San Migel bezperan,
bertan ezkondu zenetik 45 urte betetzen
zirenean, erakutsi zion esker ona, herriko ohi-
tura, jakintza eta sustraietan egindako ikerke-
tarengatik.



Beste zerbaitegatik ezagutu eta saritzeko-
tan, hauxe litzateke arrazoia: euskal etnogra-
fian emakume izena eta izana txertatu duen
anderea.





Zeraindarrengandik jasotako oroigarria

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- Karmele Goñi

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2003ko uztaila

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: Gráficas Varona, S.A.
Polígono «El Montalvo», parcela 49 - Salamanca

Inprimaketa: Gráficas Varona, S.A.
Polígono «El Montalvo», parcela 49 - Salamanca

ISBN: 84-457-1987-4 (Lan osoarena)
84-457-1991-2

L.G.: S-